

Multimendia testuen estrategia linguistikoak

eitb.com webgunearen azterketa



Ikaslea: Ibon Perez Barcena

Ikuskaritza eta zuzenketak: Joseba Ezeiza doktorea

<http://kotalaia.wordpress.com>

Harremanetan jartzeko: perez.ibon@gmail.com

Hasierako bidezidorra, bide zabal.
(Anonimoa)

Etorkizuneko erronka nagusia erabilera da
(Patxi Baztarrika, Argia-n)

Bi helburu handiz jaio zen ETB:
Hiritarren arteko informazioa eta
eskuhartze politikoa erraztu, batetik, eta
euskal hizkuntza, hezkuntza eta kultura
sustatu, bestetik.

(EiTBren sorrera legea)

[**OHARRA**]

Lan hau UPV-EHUKo EITB
Multimedia Masterreko
ikaslea izan naizen
denboran egin da.

Idatzi hauek "Multimedia
testuen estrategia
linguistikoak" irakasgaiari
dagozkie.]

AURKIBIDEA

I.	SARRERA.....	1.orria
	Interneten erabilera EAEn.....	2.orria
II.	HEDABIDEA	4.orria
	Ezaugarri orokorrak	
	Historia	
	Helburuak	
	Erabiltzaileak eta erabilera datuak	
	Oinarriak	
III.	DIMENTSIO SOZIOLINGUISTIKOA...	17.orria
IV.	DIMENTSIO PRAGMATIKO- FUNTZIONALA.....	20.orria
V.	TESTU DIMENTSIOA.....	25.orria
VI.	ESTILOA.....	30.orria
VII.	GEHIGARRIA: ELKARRIZKETA....	35.orria
VIII.	ONDORIOAK.....	38.orria
IX.	BIBLIOGRAFIA.....	41.orria



SARRERA

Komunikabiden ezaugarri nagusietako bat aldakortasuna da, hedabideen benetako euskarriak (hitza, irudia, lengoia, mezua, espazioa...) aldakorrak direlako, eta, horrez gain, aurrerapen teknologikoen aurrean oso sentiberak direlako. Multimediaren aroan bizi gara, bai, eta multimedia euskarrietara egokitzen diren kalitatezko produktuak sortu behar ditu egungo kazetariak.

Informatzaile berria atezainaren lanak egitetik orkestra zuzendariarenak egitera igaro da eta horrezkero multimediaren komunikazio-egoeren eskakizunetara egokitu behar izan du (eta egokitzen du) euskara bera ere. Baina, sareak etengabeko berrikuntzak ezagutu dituela eta, ikus-entzunezkoen sorkuntzan aditua dena beste sail batzuekin elkarlanean aritzen da eta baliabideen nahiz produktuen optimizazioak bultzatzen ditu.

Argi dago beraz, Internet-aren eta batez ere World Wide Web-aren zabalkundea egoki direla kazetaritza berria sortzeko. Gure arteko komunikabideak berandu sartu dira sarean baina, eta zaila da etorkizunean izango duten proiektzioa antzematea (batik bat joerak eurak ere aldakorrak direlako).

Esku artean edo pantailaren aurrean dituzun orri hauek, **EITB-EHU Multimedia Komunikazioa** masterraren baitan idatziak izan dira. **Multimedia Testuen estrategia linguisikoak** ikastarloanekin komunikabide multimedia eta digital bat sortzerakon kontuan hartu behar diren alderdi (sozio)linguistiko eta funtzional nagusiak zeintzuk diren ikasi dugu eta hori praktikan jartzeko, ezarritako helburuak egiaztatzeko, hedabide baten analisia burutu behar izan dugu.

Gurean webgune bisitatuena dela eta, eskola orduetan ikusitako alderdiak errealitatean aplikagarri diren edo ez frogatzeko, txostentxo honetan eitb.com webgunearen analisia egitea erabaki dut, dena euskararen kalitate parametroen azterketarekin bideratuta.

0. INTERNET. Erabilerak , atzo eta gaur

15 urte eta gehiagoko Internet-erabiltzaileak, lurraldearen, sexuaren eta adinaren arabera (%). 2009										
	Lurraldea			Sexua		Adina				
	EUSKAL AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-24	25-34	35-44	45 urte eta gehiago
Guztira (milaka)										
azken hiru hilabete	950,6	134,9	512,8	302,9	499,8	450,8	168,4	252,5	244,9	284,8

Eitb.com webguneari buruz hitz egin baino lehen, beharrezko ikusten dut sarearen erabilera datuei buruzko panoramika bat egitea.

Estatu mailan 21 milioi pertsonak erabiltzen dute internet, populazioaren % 48ak hain zuzen ere (2009ko lehen seihilekoan baino %2,5 gehiago). Gainera, beste batzuen artean, EAEk eta Nafarroak estatuko erabiltzaileen bitartekoa gainditzen dute. Horrela da bai, Eustat-en IGIF (Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta) delakoaren arabera, Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerak EAEko familia-eteetara hedatuz doaz.

Internet erabiltzen dutenen kopuruak gorako bideari eusten dio Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), baita erabiltzaile horien artean amaraunean euskaraz nabigatzen dutenen kopuruak ere. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako internet erabiltzaileen artean, bostetik batek (% 20,8) nabigatzen du euskaraz azken datuen arabera.

Erabilera generoaren arabera


%47,5arekin, gizonak dira gehien nabigatzen dutenak. Beste %37a emakumeena da, noski. Adin talde dagokionez, gazteen multzoa da gehien nabigatzen duena: 15 – 24 urte bitartekoen %80a eta 25-34 urte bitartekoen % 64a.

Ohiturak

Ordenagailuen ohiko erabilerari dagokionez, ikasleak dira internet gehien erabiltzen dutenak (%91) eta hauetatik %84 unibertsitateko ikasleak dira edo antzekoak.

Aipatzekoa da, halaber, gehienetan etxean - %65 - eta lantokian - % 44,6- nabigatzen dela. Lantokian eta ikastetxeetan edota zentro publikoetan, aldiz, gutxiagotan - % 15,7 eta, % 11,7, hurrenez hurren

EUSTATen datuen arabera, EAEko 14 urte edo gehiagoko 908.700 biztanlek erabili dute internet 2008ko bigarren hiruhilekoan, hau da, adin horretako EAEko biztanleria osoaren ia erdiak (% 49,3). 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean % 4,1eko hazkundera ezagutu du, beraz, internet erabiltzaileen kopuruak erkidegoko hiru lurraldeetan.



Euskara

Erabiltzaile kopuruak ez ezik, interneten nabigatzeko euskara erabiltzen duten EAeko biztanleen kopuruak ere gora egin du. Internet erabiltzaileen profila osatzerakoan inkestak jasotzen duen datuetako bat da hizkuntza erabilerarena. EUSTATEk emandako emaitzei erreparatuz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako internet erabiltzaileen bostetik batek nabigatu du euskaraz amaraunean 2008ko bigarren hiruhileko horretan. Hain zuzen ere, 189.100 lagunek erabili dute euskara interneten ibiltzeko. 2007ko laugarren hiruhilekoaren aldean % 2,5 igo da euskara erabili dutenen kopurua, [EUSTAT](#)en arabera.

HEDABIDEAREN AZTERKETA



1. Ezaugarri orokorrak

■ Hedabidea:



Webgunearen hartualdi bat

Zerbitzu publikoa da eitb.com, edukien sareko biltegia; atari bakarrean biltzen ditu EiTb taldearen ikus-entzunezko eduki guztiak, elkarrekintza, partaidetza, *mota* guztietako gaiak etab sustatuz.

Interneteko erabiltzaileen webgunea izaki, euskeraz, erdaraz, ingelesez eta fantsez komunikatzen du. Parte hartzeko, bozkatzeko, konpartitzeko, entretenitzeko, albistea

■ Eitb.com-en erredakzio digitala, eragileak eta bere historia (Digital borrad of editors in eitb.com)

KOMUNIKAZIOAN EREDU

Euskal Irrati Telebista (EiTB) [Euskal Autonomia Erkidegoko](#) telebista eta irrati publikoaren erakundea da. 1982an Eusko Jaurlaritzak sortua, euskara normalizatzeko helburua izan zuen bere hastapenetan eta egun, Eusko Legebiltzarraren agindupean dago.

EiTB taldea lehena da Euskadin komunikazioari dagokionez. Erakunde hau Euskadiko autonomia erkidegoko erakundea da, bai, baina bere kateek Iparralderako eta Nafarroarako ere emititzen dute.

Bost telebista kate hartzen ditu bere gain eta sei dira haren irrati emisorak. Web korporatiboa du gainera, 2000.urteko maiatzean irudi berri batekin adin nagusitasuna lortu zuena. Denbora guzti honetan, **Eitb24**-etik **eitb.com**-era, hedabide moderno baten antzera egituratu da. Milioi bat baino gehiago dira egun, EiTB taldeak

sarean duen webgunera sartu eta hurbileko informazioa eta entretenimendua bilatzen dutenak.

ETBren lehengo katea 1982ko abenduaren 31an hasi zen emititzen; gaueko 00:00etan heldu zen euskaldunon etxeetara, bai. ETB2a, bere aldetik, beranduago agertuko zen, 1986ko maiatzaren 31n. Jatorri euskaldunekoak izan edo ez, kanpotarrek bi kateren bidez jarrai ditzakete Euskal Telebistaren emisioak: ETB Sat eta Canal Vascoren bitartez. Hala ere, nazioarteko emisioak Galeusca kateak hasi zituen, Galizia, Katalunia eta Euskadiko telebisten edukiak bateratuta.

Gainera, sei irrati-emisora ditu erakunde publikoak, bakoitzak berezko izaera duelarik, eta egunero 300.000 entzule baino gehiago bilduaz: Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Euskadi Gaztea eta EiTb Musika.

Baina Interneten ere badu bere txokoa EiTbK. 90eko hamarkada amaitu baino lehen, taldeak bere webgunea estreinatu zuen eta, ordutik etengabe eboluzionatu da sitea. 2000. urtean, aro berriaren etorrerarekin, itxura aldatu zuen eta taldeari izaera berri bat emazion.

2008. urte amaieran, EiTb komunikazio taldeak hankaz gora jarriko zuen Interneten duen presentzia. 'Atari handia' jaio zen, edukiak baino askoz ere eduki gehiago biltzen dituen (eta bilduko dituen) ataria. Eduki propioak indartzen saiatzen da eta horretarako baliabide ugari erabiltzen ditu. Horrez gainera, atari berriaren ezaugarri nagusiak hauexek dira: multimedia izaera, interaktibotasuna, unibertsaltasuna, berehalakotasuna, teknologikoki aurreratua izatea eta norberak pertsonalizatzeko aukera dagoela.

Egun, milaka euskaldunen erreferentzia gune izaten jarraitzen du webguneak. Bertako antolatzaile nahiz langileak uneoro hari dira webgunearen hobekuntzari begira lanean. Bada, kazetaritza aldatuz doa eta eitb.com horren lekuko bihurtu da.

INTERNETEN-en aroa

XX. mendearen azken hirurtekoa

Honelaxe zioen estatuko hedabide batek 1999ko azaroaren 19an:

EITB recibe luz verde para lanzarse a la Red

ESCRITO POR JOSÉ A DEL MORAL EL 19 DE NOVIEMBRE DE 1999

La corporación vasca de radio y televisión EITB ha recibido luz verde del Gobierno para poner en marcha un ambicioso proyecto de digitalización de sus servicios y de creación de contenidos en Internet. Además de la renovación de sus equipos, con el fin de que todos los programas sean grabados en ordenadores, EITB creará varios canales en la Red y contará para ello con una redacción electrónica.

También está previsto que, a partir de enero, las cuatro emisoras de radio y las dos de televisión emitan en directo a través de Internet mediante tecnología Real Audio. EITB también ha mostrado mucho interés en pasar a formar parte de las diversas plataformas digitales.

Zamudioko Teknologia Parkean hasi zen dena. Euskal Irrati Telebistaren webgunearen hastapenak aztertuta, hasiera batean munduan zehar ezagutzera emateko sortua izan zela

esan dezakegu. Orokorrean Galeuska katearen programazioa eskeintzen zuen eta baita kateak emititzen zituen programa horien prentsa oharrak ere.

Lehenengo etapa horretan, web-orriaren mantenimendua automatikoa zen eta hasierako lan gisa, eskeiniko ziren edukiak kontuan hartuta, diseinua aurrera ateratzeko langileak behar izan ziren.

Programazioa idazteaz eta programei buruzko oharrak jartzeaz EiTbren prentsa departamentua arduratzen zen.

2000. urteko maiatzaren 20a



eitb24ko erredakzio zaharra

Nostradamusek iragarritakoaren kontra, 2000. urtean ez zen mundua amaitu. Udaberrian bertan eitb.com eraberritu bat estreinatu zuten. Sartu zituzten berrikuntzetako batzuk hurrengoak izan ziren: entretenimenduari zegokion ataltxo bat, telebista eta irratiak online ikusteko aukera, telebistako saioen eta irratsaioen programazioa, programa esanguratsuen eguneko erreportaien bilketa eta gaurkotasunari buruzko albisteak.

Orrialdearen ardatza Euskal Irrati Telebistaren berriek osatzen zuten eta nabarmendutako atalak (EiTbko “Betizu” edo ‘Jaiak` programen webguneak ziren.

Eduki guztiak EiTbren Komunikazio Kabineteak kudeatzen zituen. Garai hartan pertsona bat zen eitb.com-eko edukien arduraduna. Azken hau Sistema eta Grafismo departamenduekin elkarlanean aritzen zen. Txandaka, dinamismoaren bila, bi ziren asteko zazpi egunetan webgunea eguneratzen zuten erredaktoreak. Gaurkotzei dagokienez nazioarteko EiTb egin zituen ekarpenak aipatu behar dira, izan ere diasporan zeudenek bertoko albisteen berri izan nahi zuten eta zerbitzu hori eman behar zitzaien.

Egindako ahalegin guztiak balioetsiak izan ziren azkenean. 2000. urtean, internautek aukeratuta, euskal webgune onenaren Buber saria eman zioten.

Finkapena

XX. mendearen amaieran eta XXI.aren hasieran, webgune eta enpresa asko agertu ziren sarearen baitan. Hauekin batera erredakzio digital handiak ugaltu ziren. Hala ere,

eitb.com-ek, EiTb taldeko irrati edo telebistek produzitzen zituzten edukiak ustiatzeko edo aprobetxatzeko joera erakutsi zuen; gaitera, sinergiaren bitartez hedabideko departamendu dezberdinak batzen ziren.

Garai hartan hiru ziren eitb.com-en lan egiten zuten kazetariak. Hauei antolatzaile batek laguntzen zien edukien aukeraketa bat egiten. EiTb taldeko beste departamentu batzuetakoek errazten zieten lana, batik bat ikus-entzuleentzat interesgarriena zena aukeratzeko eta eitb.com-erako aukera berriak-informatiboak zein entretimenduzkoak-bilatzeke.

Horrekin batera, zibernauten partaidetzak gero eta garrantzia gehiago hartu zuen eta “Iparragirre Sariak”, “La Quiniela de los Oscars”, “Populares del Deporte Alavés”, “Concurso Canal Vasco ETB Sat”, “Gaztea Sariak” eta “Maketa Lehiaketa” bezalako espazioak agertu ziren.

Modu berean, entzuleek beraien iritziak eman zituzten Radio Euskadiren eta Euskadi Gaztearen foroak ireki zituzten. Bestetik, orduz orduko albisteak gehitu zizkioten eta baita euskararen aldeko jaietan umeez Betizuko behiekin ateratzen zituzten argazkiak ere bai. Nagusiki lan informatiboak ziren egin behar zirenak eta horregatik EiTbko sistememen departamenduko bi ingeniari soilik **eitb.com**-era dedikatzen hasi ziren.

Etapari berri horretan abiatu zituzten webguneen artean Euskadi Gaztearen site berria nabarmendu beharra daukagu. Hartan, lokutoreak eurak ziren webgunea elikatzen zutenak. Horrela, Euskadi Gaztearen programazioa eta Top Gaztea aurkeztetik gazteentzako interesgune bat izatera igaro zen sareko orria; bertan, musikari buruzko berriak irakur zitzaizketen bisitariak, kontzertu onenak Euskadiko zein puntutan ziren eta baita disko bereziak entzun eta jeitsi ere.

Web orrialde berrietako batzuk eitb.com-eko taldeak elikatzen zituen; beste batzuk, aldiz, edukiak erlazionatuta zeuden protagonistek beraiek.

Lantaldea bereziki handitu gabe, eitb.com-en edukiak ugaritzea ahalbidetu zuen funtzionatzeko modu honek. Hala ere, hori ez da izan oztopo orrialdeen bolumenak gorantz egiteko eta bisiten ugalketa emateko.

Lehenago esandakoengatik, 2002. Urtean Buber Saria eman zioten berriz, oraingoan hedabiden webgune hobereana izateagatik

Berrikuntza jarraia


Jaso zuen sari berriak eboluzionatzen jarraitzea animatu du webgunea. Honela, taldeak azpiatal korporatiboak eta bereziak sortu izan zituen. Modu berean, mugikorrenzako joku eta melodiak ateraz zabaldu zuen eskaintza.

Apurka-apurka, Euskal Irrati Telebistaren webgunea aktualitatearen aldeko apustua egiten hasi zen eta 2003. urte amaieran bi kazetari batu zitzaizkion erredakzio digitalari. Aktualitateari pisu gehiago eman zitzaion, beraz; egunean 30 albiste erredaktatzen zituzten batazbestez eta eguneko berri garrantzitsuenei multimedia edukiak (soinua eta bideoa) txertatzen zizkioten.

Hala ere, notiziak sortu beharrean, taldeko irrati eta telebistek igorritako informazioan oinarritzen ziren eitb.com-eko erredaktoreak.


Bestetik, sekulako bultzada eman zitzaion web-aren grafismoari. Horren adibide 2004. urteko abenduaren 31an egin ziren aldaketak dira; diseinua erabat zorrotzu zen eta 'Chiloé' edota 'La Flecha Amarilla' bezalako web orrialdeen homogenizazioan pausoak ematen hasi ziren. Eginkizun horretan, EiTbko Grafismo departamentuaz gainera, webguneen diseinatzaile batek egiten zuen lan eta ondo egiten zuten gainera (honen adierazgarri dira hiru urte geroago Teknopolisek jaso zituen sari desberdinak eta baita eitb24.com-ek infografiengandik lortu zituenak).

taula: eitb.com eta eitb.24 webguneen emaitzak, hizkuntzaren arabera:



**OJDren
datuak
(2006-2007)**

DIGIBAT proiektua




DIGIBat euskal hiriburuen akronimoa, EiTbren digitalizazio integralaren prozesua

Internetek edukiak batu eta sarean integratzea ahalbidetu zuen. Hala ere, hori nahikoa ez balitz, Euskal Irrati Telebistako egoitzak espazio berdin batean lotzeko beharrezana agertu zen. Andoni Ortuzar Euskal Irrati Telebistako zuzendaria izan zen garaiari buruz gabiltza.

DiGIBat proiektua lehenago planifikatu bazen ere, ez zuen 2007. urtera arte argirik ikusi. Haren helburua osotasunean EiTbko instalazioak eta tresnak digitalizatzea eta multimedia kontzeptua bultzatzea izan zen.

Iurretako egoitza zaharkitua geratu zela eta, Bilboko erakustazoka zegoen lekura eramán zuten bizkaiko egoitza berria. Miramoneko estudioak handitu zituzten ondoren (oraíndik berriztapen sendo bat eramán behar dute aurrera) eta modu horretan, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baionako egoitzak blokean batuta ahal izan zituzten, urrun baina gertu. Aipaturiko bost egoitzek EiTb Taldearen zerbitzu guztiak biltzen dituzte.

AGUR EITB24, KAIXO eitb.com



Bingen Zupiria ETBko jarduneko zuzendaria zela, eitb.com-en jaiotzaren testigu izan ziren zibernautak. 2008ko urriaren 10ak, eitb.com berriaren ibilbidearen hasiera ez ezik, telebista kalte berriaren (ETB-3) estreinaldia, Radio Euskadiren 25. urteurrena, EITBren Bilboko egoitza digitalaren lehen urteurrena eta denboraldi berriaren hasiera ere suposatu zuen.



Tartean, ni (Ibarretxeren behekaldean)

Langileak Miren Azkarate, Ibarretxe, Bingen Zupiria eta eitb.com-eko buru izan zen Juan Diegorekin

Izan EiTb lemapean egin zen eitb.com-en inaugurazio ekitaldia. Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari ohia EiTbren Bilboko egoitzara hurbildu zen eta ETB3 kate berriaren lehen emisioa aireratu zuen gainera.

Hasierako “beta” formatuan izan zen abiatua orrialde weba, baina aste baten buruan behin-behineko HOMEaz gozatzea izan zuten internautek. Taldearen 25 urte bete zituela eta, EiTbk bere webgunearen diseinua eraberritu zuen.. Orduetik eduki berriak eskaintzen dizkio erabiltzaileari.

Audioez eta bideoez gozatzeko aukera izan ziren berrikuntzarik aipagarrienak. Honela, EiTbren irrati eta telebista kateetan eskaintako edukiak eskuragarri zituen erabiltzaileak; elkarrizketak, erreportajeak, bideo bitxiak, albiste aipagarriak, plano putzak, irudi ikusgarriak...

Juan Diego zen eitb.com-eko burua, Edurne Ormazabal bezeroen atalaz arduratzen zen, Iruñe Bañalesek Telebista nahiz Irratiko edukiak kudeatzen zituen sarean eta Lontzo Sainzek aktualitatea gestionatzen zuen.



2008ko urtarrilaren 31n, ETAk bonba-auto bat lehertarazi zuen EITBren Bilboko egoitzaren kontra.



Atentatuak kalte asko sortu zituen

Eztandaren eraginez, kalte material handiak izan ziren EITBren egoitzan eta inguruko beste hedabide batzuen bulegoetan ere. Eitb.com-en erredakzioa suntsituta geratu zen eta langileek etxetik egin zuten lan (Eneriz Urutxurtu eta Lontzo Sainz).

ORGANIGRAMA BERRIA



Andoni Ortuzar
1999- 2008



Bingen Zupiria
2008-2009



Alberto Surio
2009- Karguan

Alderdi sozialista gobernura heldu zenean, alderdi popularrarekin batera EITB taldearen zuzendaritza aldatzea berbatu zuten. Eusko Legebiltzarraren babesari jaso eta gero, 2009ko maiatzaren 18an, Alberto Surio kazetari donostiarra jarri zuten [Euskal Irrati Telebistako](#) zuzendari eta honek bere taldea izango zena aurkeztu zuen.

Organigrama berriari begira Edurne Ormazabal hautatu zuten eitbnet-eko zuzendari berri. Eitb.com-eko aktualitateari dagokionez, Lontzo Sainz (une honetan hiriak eta herriak lotzen dituen NETWORKING proiektuan sartua dago) Iñigo Herce ordezkatu zuen eta Irune Bañales Irrati eta Telebistako edukietatik bezeroen atalera igaro zen.



Iñigo Herce

Korronte berriak azalduz doaz eta ondorengo hilabeteotan berrikuntza gehiago sartu nahi dituzte eitb.com-ekoak, Internet bidezko telebista besteak beste.

- **Helburuak**



**AUKERA
ASKO,
TOKI BAT**

EiTB Eusko Jaurlaritzak sortu zuen eta zerbitzu publiko bat eskaintzeko jaio zen.

Egun, erabiltzaileak anitz dira eta webgunearen xede nagusiak ere asko dira.

Etorkizunean gehiago izango badira ere hauexek dira eitb.com-en helburuak:

- ❖ Funtzio komunikatiboa
- ❖ Partaidetza sustatu (irakurlea ez da subjektu pasibo bat)
- ❖ Funtzio integratzailea (kohesioa)
- ❖ Marka indartu



**Youtube kateak telebistari
publizitatea egin diezaioke**

- ❖ Hizkuntzaren normalizazioa
 - Ahalegin handiak zuzentasunean
 - Hizkuntza sortzaile eta normalizatzailea
- ❖ Entreenimendua
- ❖ Euskal Herriaren leiho bihurtu (kanpokoentzat nahiz hemengoentzat)
- ❖ Multiplataforma-estrategia: eduki bat lantzen denean, ahalik eta euskarririk gehienetan zabaltzeko ahalegina.

■ Erabiltzaileak eta erabilera-datuak

Anonimotasun, gustu, adin eta erabilera anitzagatik zaila da internauten profil zehatz bat egitea; pertsona helduek informazioa kontsumitzen dute batez ere, gazteek jolasak, musika eta erraz irentsi ditzaketen edukiak (bideoak, infografiak...). Zibernautak nongoak diren esatea errazagoa da, aldiz, EiTb Euskal Herriko hedabidea izanik zazpi lurraldeentzako pentsatua baitago webgunea. Gainera, eitb.com-ek eskaintzen dizkigun hizkuntzen artean ingelesa presente dagoela eta, mugak ezabatu eta nazioartekora zabaltzen da (Estatu Batuetako diasporakoek ere bere lekua aurkitu dute Euskal Irrati Telebistaren sitean).

Nerabeak eta gazteak dira *Internet* gehien kontsumitzen dutenak eta horiexek dira eitb.com-ek lehenesten dituen kontsumitzaile taldeak (azken finean etorkizuneko euskararen erabiltzaileak biltzen dituen multzoa da hau eta baita euskarazko hitzundentsitate altuena duen giza multzoa ere).

Orokorrean 16 -34 urte bitartekoa da kontsumitzaile potentziala. Horrek ez du esan nahi adibidez 50 urtekoak webgunera sartzen ez direnik. Dena da, beraz, ezagutzaren, adinaren eta erabileraren araberakoa.

Bestalde, informazio-trafiko geldiezinagatik eta jende kontzentrazioagatik hiriburuetako biztanleak hartzen dira kontuan.

Estatistika onenak konparazioak eginda ateratzen dira. EiTbren erabilera datuak OJDren bitartez dakizkigu, baina ezin ditugu jakin Berria (eta honekin batera tokian tokiko Hitzak) edota Argiarenak. Hiru hedabideak ageri diren foro bakarra Alexa da, kontsumoen arabera antolatutako mundu mailako ranking-a eta honako datu hauek erakusten dizkigu:

Posizioa:


eitb24.com 37.242. postuan*
 eitb.com 57.328.ean*
 berria.com 77.537.ean*
 argia.info 402.000.ean*

Aipamen hau egitea zorigaiztokoa bada ere, eitb.com-en bisitarik gehienak gertaera lazgarrietan (atentatu, hondamendi natural etab luze bat gertatzean) izaten dituela esan genezake.

Eitb.com-en audientziari dagokionez, 2008an, hileko erabiltzaile bakarren batezbestekoa 600.905ekoa izan zen. 2009ko urriko batezbestekoa 628.492 erabiltzailekoa izan da. Datu horiek zera esan nahi dute: zenbat pertsona ezberdin konektatu diren EiTb taldearen webgunera hilabetero.

2010. urteko maiatzean, eitb.com-ek 822.722 erabiltzaile bakar lortu zituen, urteko lehen 5 hilabeteetan izan duen goranzko jarrera berresten duena.

OJDk ikuskatutako Nielsen-en neurketen arabera, 2010a hasi zenetik, eitb.com-en audientzia hasten joan da hileroko etengabe. Horrela, urtarrilean 624.000 erabiltzaile bakar zituen eta maiatzean 800.000.



2010. urtea. Erabiltzaile bakarrak. Datuak: Nielsen-en neurketa eta OJDren auditoria

Datuon arabera, urtearen lehenengo sei hilabeteetan maiatzean eitb gehien ikusi ziren edukiak [albisteekin](#) lotutakoak, ETBko saioen ingurukoak (batez ere "El Conquistador

del fin del Mundo" eta "Vaya Semanita") eta kirolletakoak (bereziki Italiako Giroa) izan ziren

Eduki motari dagokionean, bideoak (ikus. Edurne Ormazabalari egindako elkarrizketa) jaun eta jabe izaten jarraitzen du eta blogek, berriz ere, 100.000 erabiltzaile bakar baino gehiago izan dituzte. Azpimarragarria da lehenengoz jaso direla 50.000 bisita baino gehiago sare sozialetatik (Facebook eta Twitter) etorrita. Zehazki 68.317 izan ziren sare sozialetatik jasotako bisitak (bideratutako trafikoaren inguruko datuak, Google).



Eitb.com-era ohiko kontsultak egitera sartzen denik ere badago. Ateratzen diren datu arrakastazuen arabera, sarri dira, esateko, egunero-egunero eguraldiari buruzkoak kontsultatzen dituztenak

Betizu Klub-aren arrakasta ikusita, EiTBk Betizu.com webgunea ireki zuen. 2006ko urriaz geroztik, webgune berezia da eta eduki landuagoak ditu. (haurrentzako euskara hutsean), etengabeko berrikuntzan. Aisialdirako edukiak eta telebista-programazio eta Klubarekin lotutakoak eskaintzen ditu.

- **Hedabidearen lekua sareko (euskarazko) komunikabideen mapan**

Gure arteko komunikabideak berandu samar sartu dira sarean, eta haien egituren eskasiak daude. Hala ere, mundu fisikoan gertatzen den legez, ziberespazioan ere Euskal Herriko komunikabideek zenbait esparru konkistatzeko lanean dihardute.

EiTB taldea euskarazko hedabideen mapako parte inportantea da. Haren webgunea Euskal Herriko zaharrenetarikoa dugu eta bisitatuena ere bada. Sarean kompetentzia

handia dago eta eitb.com-ek beste webguneetatik bereizi beharra dauka (eta bereizi egiten da). Euskarazko mundua elikatuko duten eduki interesgarri zein kalitatezkoak ere sortu behar dira, gainera.

EiTBren zerbitzuak urte asko daramatza merkatuan, gero eta onarpen zabalagoa du euskal gizartean eta eskaintzen dituen edukien kalitatea hobetuz da.

Komunikatzeko tresna izateaz gainera, besteak beste, euskararen garapen eta normalizaziorako tresna ere bada.

Ez da bere tamainan baloratu, ordea, euskarazko hedabide honek gure hizkuntzaren normalizazio prozesuan izan duen eta edukiko duen paper zein eragina.

<<EITBk hezkuntza normalizaziorako plan integral eta estrategikoa behar du, euskarazko nahiz erdarazko hedabideak barne hartuko dituena>>.

Nire aburuz, hedabide publikoa den heinean euskarazko beste hedabideen arteko lankidetzeta eta koordinazioa sustatu behar ditu.

Eitb.com-en euskaraz sorturiko edukiak ahalik eta euskarri gehienetatik, zabalkunde handienarekin erabiltzen dira; gainera, EiTBk dituen baliabideak gero eta erarik eraginkorrenean erabiltzen ditu.

Baina produktuak euskaraz ekoizti ahal diren heinean hizkuntza bera ere baldintzatzaile bihurtu daiteke. Hobeto esanda, hizkuntzaren erabiltzaileak, hots, euskararen zabalkundea eta eta honen erabilera kopurua dira mugarriak.

Oraindik jaiotzeke dago Euskarazko komunikabideen mapa. EHUko komunikazio zientzien fakultateko irakaslea den Joxerra Garziaren arabera (Argia, 2005eko otsaila, 47. zenb.), euskarazko komunikabideak ez dira sortu gizartearen isla izateko. Ez behintzat horretarako bakarrik. Hedabideak sortzeko lege-aginduetan bertan argi eta garbi esaten da euskararen normalkuntzarako tresna behar dutela izan. Euskarazko hedabideek ezin dute, beraz, gizartean erabiltzen den euskara maila berarekin etsi: maila hori hobetzen ahalegindu ezean, alfer-alferrik leudeke. Eta bai: ez dagoena (ez dagoen euskara bat) asmatu beharra dago horretarako.

EAEko ziberkomunikabideen herenak erabiltzen du sistematikoki euskara; Gipuzkoa da ziberkomunikabide gehien dituen lurraldea; gehienak egunkariak edo berritze etengabekoak dira; batua da nagusi; euskalkiaz idatzita dauden komunikabideak (partzialki, beti), batik bat bizkaieraren barietate bat erabiltzen dute; diru publikoz lagunduak dira, eta publizitatea modu mugatuan erabiltzen da; gutxi erabiltzen dira elkarreragina eta multimediatasuna; eta, oro har, euskal ziberkomunikabideen laurdena baino ez da propio interneterako sortua.

▪ **Oinarriak: RTVE.es, eitb.com –en erreferentzia?**



Hedabide berriak izaera eta izate propioaren aldeko borrokan dabilta uneoro. Ez dituzte beste mediak ahazten, ordea. Egunero egunero, erredakzioan sartu bezain pronto, kazetariak gainerako komunikabideen baliokide digitalak ikuskatzen dituzte (*El Pais*en webgunea, elcorreodigital.com etab).

Higuingarriak izaten dira baina batzuetan nahitaezkoak dira konparazioak. RTVE.es, Espainiako irrati-telebistaren webgunea (2008ko maiatzaren 20tik sarean) eta Euskal irrati-telebistaren webgunea (2008ko urriaren 10etik online), aurrez aurre.

Normala da. Betidanik aipatu izan da Euskal irrati Telebistak espainiar estatuko telebista nagusia izan duela erreferentzia. RTVE berari ere sarritan atera dizkiote kanpoko telebista estatalekin antzerakotasunak (BBCaren kasua ikusi beharra dago).

TVE zaharra da, RTVE(.es) haren aurpegi berriztua. Aurrekoaren aldean EiTB jaioberria dugu. Bere web orrialdeak edukiak gorputz ditu, digitalizazioa apaingarria da. Eta edukia bera da eitb.com rtve.es-etik desberdintzen duena.

MENU HORIZONTALA

BILATZAILEA

EDUKI ATENPORALA, CZUTABEAN

Badago egon eitb.com eta rtve.es webguneen artean antzekotasunik ikusten duenik

Itxurari dagokionez, EiTB eta RTVEren webguneek antzekotasun ugari dituzte. Orrialde bien atari digitaletan sartuaz gero, goian menu horizontal bat aurkituko dugu eta oraindik gorago, bilatzaile bat. Gainera, destakatuak-informazio esanguratsuenak-toki berean joango dira kokatuta normalean (garrantzitsuenak lehenengo bi zutabeetan eta atenporala dena hirugarrenean).

Jar diezaiogun arreta argazki honi:



(eitb.com-eko menu horizontala)

...orain, ikuskatu beheko hau:



(rtve.es-eko menu horizontala)

Goikaldeko barrak ematen dio ordena kaosari. Eitb.com-en kasuan dena dugu gure begien aurrean, baina egituraketa sinpleagoa izango balitz ez ginateke orrialdean bertan galduko.

RTVEren webgunea aztertuta zera esan dezaket:

- **4 sail nagusi pestaina bezala.** Azala, Albisteak (nire aburuz interesgarriena da), Telebista eta Irratia.
EiTB.com-ek hautapen-aukera gehiago eskaintzen dizkigu eta hasiera batean gehiegizkoa iruditu dakiguke. RTVEko erlaintzak edukiak ordenatzen ditu baina bisitariak lan gehiago egin behar du atzean dagoena deskubritu behar duelako (eitb.com-en kasuan dena dago bistan)
-
- **ADN dohainiko egunkariaren 'argazki erruleta'.**
Eitb.com-en kasuan, argazkiak estatikoak izaten dira. RTVEak, aldiz, ADN egunkariak bere diseinu berrian erabili zuen 'argazki erruleta' jarri du.



ADNren webgune berria

- **Erlazionatutakoak bai, loturak gutxi.** RTVEren azalean arto erakusten dituzte (orlegi, urdin edo gorri koloreekin) albisteekin erlazionatutako edukiak. Zoritxarrez, testuan ez da berdina gertatzen: elmundo.es edo elpais.com-en kasuetan gertatzen den bezalaxe, ez dago irakurlearen jakinmina handitzen duen loturarik. EiTBk, bere orrialdearen trafikua ugaritu nahi duela eta, lotura kalkulatuak aurkezten ditu.

- **Egituraketa nahasia albisteen atalean.** Hedabide guztiek erabiltzen duten formula hurrengoa da: bi zutabe nagusik albiste aipagarrienak jasotzen dituzte eta eskumako batek eduki atenporala biltzen du. RTVE.es-en kasuan ez da hori gertatzen, bideo, imajina eta loturak aleatorioki antolatzen dira eta bi zutabe horiek hiru bihurtzen dira-
- **¡Habemus aurretitulua!**: Antzinakoak itzuli dira. Aurretituluak, laburrak badira ere, azala zipristintzen dute eta albiste bakoitzaren gaia zehazten. Beharrezkoa al da hori hedabide digital batetan?
- **Scroll askorik ez.** Berritasun apur bat: amaigabea izan beharrean orrialdea laburra da eta informazioa zehaztasunez idatzia dago. EITB.com-ek eduki asko eta asko aurkezten dizkigu.
- **Konfiguratu egin daiteken orrialde bat?** Partaidetza murrizta denez, BBCaren webgunearekin gertatzen dena aplikatuko du RTVEk etorkizunean: zibernautak, bere gustuen arabera orrialdea taxutzea izango du.
- **Akats handia:** Guk denok ordaintzen dugun erakunde publikoak, *RTVEk*, ez ditu bere bideoak edo audioak konpartitzen (*Público* edo *Cadena SER*-en posible da hori egitea). Zergaitik ez dute embed bat jartzen jendeak eduki horiek hartu eta bere orrialde propioetan txertatzeko? Orrialdea pertsonalizatzeko ezintasunarekin bat, hau da eitb.com-ek rtve.es-ekin duen antzerakotasun latzgarrietako bat

Laburbilduz, eitb.com-en zatirik nahaspilatsuena hasierako orrialdea edo <<HOME NAGUSIA>> den bitartean, RTVEren alderdirik beltzena barrukaldekoa da. (hasierakoak erakargarritasuna ematen du).

Eitb.com ez da baztertzaila eta testuak lau hizkuntzatan arkezten dizkigu. RTVEren webguneak, bere aldetik, espaniako irrati-telebistaren webgunea bada ere, ez dizkigu edukiak espainiar estatuko hizkuntza desberdinetan (galegoz, katalanez edota euskaraz) ematen.....penagarria!

2. Dimentsio soziolinguistikoa

▪ **Komunikaziorako baliabideak:**

Amaraunean, etxeko informazioa (Euskal Herrikoa nahiz EITB bertakoa) etengabean lantzen du www.eitb.com -ek . Komunikabide berriak datuak sortu eta zabaltzen ditu, Euskal Herriatik Euskal Herrira eta hortik muduaren luze-zabalera. Baina ez da eduki informatiboetan geratzen den kazeta digital bat soilik, zerbitzuak ere eskaintzen baitzizkigu (lehiaketak, trafikoa kontsultatzeko aukera, eguraldia, On egin izeneko gastronomia gida bat, agenda kulturala...).

Eitb.com-en multimedia sistemaren elementuak honakoak dira:

- **Testua(k):** Formatua kontuan izan gabe, mezua transmititzen duten karaktereak dira. Erredaktore edo kazetariak idatzi edo moldatu egiten dute eta itzultzaileek beste hizkuntza batzuetara itzultzen dute. Normalean prentsa buletinotako datuak edo albiste agentzietakoak izaten dira hauen iturri. Kazetarien lana erdarazko eta euskarazko testuak manipulatzera mugatzen da.
 - + **Hipertestua:** Loturak erabiliz informazio baliabideak konektatzea posible egiten duen sistema bat da.
- **Audioa(k):** Kasu honetan, euskal irratietako (Radio Euskadi eta Euskadi Irratia) transmisioak izaten dira eta mp4 formatuan igotzen dituzte sarera.
- **Bideoa(k):** Eitb.com-eko edukirik ikusiena izaten da. Hasiera batean informatiboetako zatiak izaten ziren. Egun, eitb.com-ek bere erreportaiak ekoizten ditu (esaterako, aurtien Mundakako Surf txapelketako erreportai bat egin dute). FLV formatuan eskegitzen dituzte webgunean.
- **Infografia(k):** Modu didaktiko, grafiko eta zuzen batean gai baten aurrean hezitzea du helburu.



Ezkerrean, Gernikako bonbardaketari buruzko berezia. Goian, aldaketa klimatikoari buruzko infografiaren aurreneko orria


Eitb.com-ek infografia ugari egin ditu. Famatuenak hainbat sari lortu dituen klima aldaketari buruzko infografia eta Gernikako bonbardaketari buruzkoak dira.

Euskal telebistaren kanal ezberdinetan emititu diren bideoak eta euskal irratan entzundako audioak, egoerak hala eskatzen duenean igotzen dira sarera.

Webgune multimedia da, euskarri eta baliabide komunikatibo guztiak kontutan hartzen dituena.

Eitb.com-ek baliabide ugari erabiltzeko aukera luzatzen digu, bai. Atarian, erabiltzailea da eskaintzen zaion edukia garrantziaren arabera sailkatzen edo hierarkizatzen duena. Ikusentzuleak aukeraketak burutu ditzake eta komunikazioa norabide anitzekoa da, beraz.

Blogak, foroak, inkestak eta eztabaidak dira besteak beste elkarreragina sustatzen duten tresnetako batzuk. Honetaz gainera, ugari dira webgunean txertatzen diren irudiak. Baina baliabide guztien gainera nagusitzen dena, oraindik ere, testua da. Jendeak betiko estiloa botatzen du faltan antza eta digitalizazioa garai berrietara prestatzeko apaindura besterik ez da.



Norberaren inguruan gertazen diren jazoerei buruzko bideoak eta albisteak bidaltzeko aukera, erabiltzaileen interesaren arabera.

▪ **Lehentasunak: edukiak vs komunikazio-dinamika vs hizkuntza bera**

Komunikatu nahi denaren arabera da edukia eta edukia hizkuntzak zehazten du (eitb.com-en, esaterako, ingeleraz idatzita egoten dena diasporan dauden euskaldunentzako idatzia egoten da).

Edukia Vs komunikazio-dinamika Vs hizkuntza bera. Ez nuke esango, bada, guztiak guztien kontra doazenik, edukiak edukien integrazioak direla baizik. Eta batek kale egiten badu besteak ere kale egingo du, erlazionatuta daude eta.

Erabiltzaileak informazioa jasotzeko aukera dauka eta baita honi buruzko iruzkinak egiteko ere. Halaber, ikusentzuleek egiten dituzten kritiken bitartez, webgunea maneiatzen dutenek komunikazio dinamika berriak sortu ditzakete.

Aplikazio bakoitzak bere funtzioa eta bere administratzailea dauzka, baina horrek ez du esan nahi bisitariari partaidetza mugatzen zaienik. Modu horretan, bisitariak ez ditu eguneko albiste garrantzitsuenak idatziko baina “Zu kazetari”

Komunikazio dinamikari eta edukien binomioari dagokionez, uste dut oreka-puntu bat aurkitu beharko litzatekeela. Duda barik, jendartean eragitea bilatu behar du komunikabide batek (sentsazioren bat, interes soila piztea etab) , baina zabarkerian edota horikerian jausi.

Ikusleen ohiturak sortu/moldatu egiten dira eskaintzaren arabera, eta audientzia ere hezi egin daiteke. Hala ere, eragileak direnez, erabiltzaileek ere badute zer eginik.

Hizkuntzaren erabilerari buruz hitz egitean, orain dela gutxiraino euskara bigarren plano batean zegoela esan behar dugu (euskaraz eguneratzen zen apurra albiste sailekoa zen soilik), baina zorionez horrek hobera egin du.

Gurean euskara dugu desberdintzaile. Nire ustez, eskaintzen ugaltasunaren eta aniztasunaren aurrean, ama hizkuntza dugu legitimatzaile.

Euskal irrati Telebistak beltza du etorkizuna, askoren artean irrati-telebista bat baino gehiago izanik, nortasun gabea baldin bada, definizio zehatzik ez badauka.

- **Multimediaren, hipertestuaren eta elkarreraginaren ustiatze-maila.**

Multimediaren bitartez (eta formatu desberdinetan), Interneteko bisitariak EiTbko ekoizpenak sarean aurkitu ditzake. Horrela bada, eitb.com edukien biltegi erraldoi baten antzera hartu dezakegu.

Erabiltzaileak ordenagailuarekin elkarreragin dezake, eta horrela aurkezten ari den kontzeptua ulergarriagoa suertatu dakioke. Eta horixe egiten dute eitb.com-en: informazio baten osagarri bideo edo audio bat jartzen dute eta informazioa ulerterrazagoa izan dadin hipertestuak txertatzen dizkiote testuari. Testu-zati hauek, eitb.com webgunearen barruan norabide ezberdinak hartzen dituzte (azken finean interesatzen dena trafikoa komunikabidean bertan sortzea da) eta berauek irakurleari ibilbidea aukeratzeko parada ematen diote.

Apurka apurka, gainera, sare sozialak sartu eta indartzeko ahaleginak sumatzen dira webgunean.

Jendeak ordenagailuaren aurrean gero eta denbora gutxiago pasatzen duela eta, gestoreek erakargarritasunaren alde egin nahi dute. Etorkizunean eitb.com



▪ Funtzio soziolinguistikoa:nork, norentzat eta nola.

Oraindik datu egiaztagarririk argitaratu ez dutenez, zaila da puntu honi erantzuna ematea (audientziari dagokionez behintzat).

Interneten audientzia anonimoa izaten da. Eitb.com-en erredakzioa bisitatuta, ataria administratzen dutenak erraz asko ezagutu ditugu, ordea.

Funtzio soziolinguistikoa bideratzen dutenak eitb.com-eko **kazetari elektronikoak** izaten dira, zenbait kasutan edukien analista izenez ere ezagutzen direnak, atari jakin bateko kontsumitzaileentzat interesa izan dezakeen informazioa idazteaz arduratzen direnak.

Jakin badakigu *Internet* gazteriak kontsumitzen duela (14 urtetik 35 urte bitarteko adintartera) orohar eta horixe da eitb.com-ek bere publikoari buruz izan dezaken ideietako bat. Are gehiago, erredaktore digitalak lizentziatu berriak dira eta intuizioz ikusentzule masiboaren estimuluak ezagutzen dituzte.

EiTB, irrati-telebista publikoa da; zerbitzu publikoa eskeintzen duena, beraz. Eta honexegatik, bere izate arrazoiari eta bere helburuetan oinarritzen da, eta ez audientzia neurketetan.

Audientzia eta zerbitzu publikoa ez dira elkarren ukatzaile, baina. Tamalez, ez dira nahitaez betiere ondo moldatzen elkarrekin. EiTBk audientzia behar beharrezkoa du, bizi ahal izateko, eta horren bila moldatu beharko ditu edukiak. Diferentea izan beharko litzateke, ezberdina izateko obligazioa du, eta zerbitzu publikoa dela demostratu behar du eta bere legitimitatea hortxe dagoenez, berak erabakitzen du zer eskaini behar digun.

3. Dimentsio pragmatiko- funtzionala:

Eitb.com-ek edonolako erabiltzaileak bildu nahi ditu bere webgunean, baina lehenasuna euskal telebistako eta euskal irratiko erabiltzaileei ematen die.

Telebista eta irratia on line			
ETB Sat		Canal Vasco	
Euskadi Irratia		Radio Euskadi	
Radio Vitoria		Gaztea	
EITB Musika			

Powered by 

Apokaliptikoek Internetek telebista eta irratia itzala egingo diola esaten badute ere, eitb.com-en kasuan ez da hori gertatuko. Ordenagailuaren aurrean, EiTBk bere irratietan eta telebistetan emititzen duena jarrai dezakete zibernetek.

Asko dira eitb.com-ek komunikatzerako orduan erabiltzen dituen estrategiak. Alde batetik, albiste hutsekin informatzea bilatzen du. Hauek euskarri desberdinetan egon daitezke, testu idatzian, audioan edo bideoan. Beste alde batetik, informatzea eta aldi berean jendearen parte hartzea eskaintzen duten blogak, foroak edo lehiaketak ere

- 23 aurkitu ditzakegu, Tematikoa edo [Aupatu](#) bezalako atalak kasu. Lehenengoak gai baten inguruan sakondu eta ondoren irakurleek beren mezua uzteko aukera ematen du. Bigarrenak, aldiz, erabiltzaileek web guneko portadan azaltzen diren albistek komentatzeko aukera eskaintzen du eta baita bozkatzeko ere.


Baina Euskal Irrati Telebistako atari honek esan bezala, ez du informatzea bakarrik bilatzen, entretenitzea da bere beste helburu nagusietako bat. Horretarako aukera desberdinak jarri ditu martxan “Perretxikoen bloga”, “Xabier Usabiagaren foroa”, “Eingo al dea”, “Zurean , zer giro /hotza” dira besteak beste horren adibide. Hauetan guztietan jendearen parte hartzea bilatzen da entretenitzearekin batera.

Bestalde, lehiaketa atalaren barruan erabiltzaileek kontzertu edota museoetara joateko sarrerak eskuratzeko aukera izango dute zozketen bidez. Umeez eta gazteek gainera Betizu eta Gaztea atalen barruan aisiarako eskaintza bereziak topatu ahal izango dituzte, jokuak, zozketak, musika, bideoak.

Webguneak informatu eta entretenitzeaz gain praktikotasuna ere bilatzen du eta horretarako, zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu erabiltzailearen mesederako. Horietako batzuk, burtsa, eguraldia, kartelera edo farmazien ordutegiari buruzko informazioa dira, eskaintza komertzialarekin batera. Azken honetan EITBko produktuak, hegaldi bilatzailea, etxebizitza topatzeko aukera higiezin bidez eta lanpostu bilatzailea topatu daitezke.

Edukiak antolatzeko eta nabarmentzeko estrategiek itxurosotasuna ematen diote webguneari. Menu horizontal baten bidez azaltzen dira eskaintzen diren atal guztiak, kultura, kirola, eguraldia, Betizu eta Gaztea, besteak beste. Etiketa hauen gainean kolore desberdinez nabarmenduta, bideoak, argazkiak, audioak edo blogetan sartzeko aukera daukagu. Web gunearen portadan gainera, albistek, eguraldiaren informazioa, bideoak edo kultura, besteak beste banatzeko kolore desberdinak erabiltzen dira. Nabarmentzekoa da goiko menuko atalak portadan bertan topatu daitezkeela, beraz, oro har nahiko korapilatsua da, sarreran bertan eduki gehiegi daudelako. Bestetik, portadan albiste nagusia bideo batekin lagunduta azaltzen da eta gainontzeko albistek ezkerrean argazkia daukate. Goiko partean flash-a nabarmentzen da Zu Kazetari atalaren bidez erabiltzaileek parte har dezaten. Bestetik, zerbitzuak, eguraldia edo telebistari buruzko informazioa eskumaldean dagoen bitartean, albistek, blogak edo lehiaketak ezkerrean kokatuta daude.

**Arpegi esagunek ere
bere presentzia daukate
webgunean**



Arestian aipatu bezala, Eitb.com estrategia desberdinen inguruan ardaizten da: alde batetik, informatzea, hau da, edukien transmisio hutsa eskaintzea eta bestetik, transakzioaren bidez erabiltzaileen parte hartzea bultzatzea. Edukien transmisio hutsa bideratzeko euskarri desberdinak erabiltzen dira, audioa, bideoa, testua edota argazkia. Transakzioa burutzeko berriz, web guneak aukera desberdinak eskaintzen ditu, blogak, foroak eta zozketak esaterako. Horrela aukera guzti hauek eskaintzen dituzten edukien barrena mugitzeko modu autonomoa eskaintzen dio erabiltzaileari. Dena den aipatzekoa da, parte hartzeko eskaintzen diren metodo guztiak ez direla berdinak, batzuk inplikazio maila altuagoa eskaintzen baitute. Xabier Usabiagaren foroan esaterako, iritzi edo komentario labur bat idatzi dezakezun bitartean, “Zurean , zer giro /hotza” atalean adibidez, zure inguruan dagoen eguraldiaren berri eskaini beharko duzu. Aldi berean, ez da berdina zozketa baterako izena ematea edo “Perretxikoen blog”-ean idaztea.

Eitb-com-ek elkarreragina bilatzen du foro eta blog desberdinen bidez. Egunerokotasuna aldiz, albistek ekartzen dute, arduradunek une oro azkenengo berriak eskaintzen saiatzen dira, hau dela eta, web gune honetako portada oso aldakorra da. Bukatzeko, entretenitzeko helburuarekin, lehiaketek, musikak edota jokuek aisiari emango diote pasoa, Gaztea edo Betizu sailetan batez ere.



Webgune honek edukiei ematen die lehentasuna, informatzeari alegia. Baina entretenimendua alde batera utzi gabe. Gure ustez, Eitb.com norabide anitzeko hedabide multimedia bat da eta beraz, nahiz eta egunerokotasuna bilatu erabiltzailea ere eskaintzen denaren parte izatea bilatzen du. Horretarako aukera desberdinak jarri ditu martxan Aupatu atala da argiena, honetan, hasieran eskaintzen diren albistek komentatzeko eta baita hauengatik bozkatzeko aukera ere ematen du. “Zurean, zer giro/hotza” atala ere oso esanguratsua da, edonork bere etxetik eguraldiaren berri eman dezakeelako eta beste erabiltzaileek informazio hori eskuratu. Norbanakoaren interes partikularrei ere egiten die tarte eitb.com-ek etxebizitza edo lana bilatzen dauden erabiltzaileek edota burtsa eta loteriaren berri jakin nahi duen orori.

4. Testu dimentsioa

EiTB.com-eko multimedia produktuek testua, irudia, audioa eta datu-baseak integratzen dituzte unitate diskurtsibo bakar batean. Komunikatzaileak euskarri horien guztien berezitasunak integratu behar ditu unitate diskurtsiboan eta euskarrien eskakizun desberdinei erantzun behar die.

- **Testu ereduak: nolakotasuna, banaketa, funtzioa...**

Imanol Epelde klasekideak bere lanean esaten digun bezalaxe, paperezko testugintzari dagozkion ezaugarriak dituzte interneten aurkitu ditzakegun ia testu denek.

Eitb.com-eko testuen ereduak beti izaten da berbera: hipertestuekin lagunduta doana eta iraulitako piramidearen edo iceberg-aren itxura daukana. Alegia, izenburu bat, sarreratxoa eta corpusa daramatzana.

Kasuotan, testuak labur eta dinamikoagoak izaten dira, sakonegiak izan gabe, baina behintzat erabiltzaileari informazio gehiago bilatzeko interesa sortzeko modukoak.

Normalean, Euskal Telebistako albistegietako bideo bat eramaten dute berriek itsasita eta bi zutabeko zabalera izaten du testuak . Gaia zein duen, horren arabera sail hauetako bati atxikitzen zaio albistea: “politika”, “ekonomia”, “gizartea”, “kirola”, “mundua”, “bitxikeriak” edota “teknologia”.

Albistek agentzietako informazioarekin garatzen dituzte kazetariak. Askotan, aurrekoarekin erlazionatutako informazio berria heltzen da eta aparteko albiste bat idatziz beharrean, lehenengo idatzian integratua joaten da.

Bermeoko zenbait atunontzik militar ohiak ontziratuko dituzte

Titularra

SARRERA

Bideoa

Erlazionatutako edukiak

- Ahuntasbidei segurtasun pribatua kontratuak ebatzi lezango dute
- Chacon: "Babildak" Playa de Bakio irons baino luzeago izan daitezke
- Erkorka: "Er dago otebiditako" Orensari, ministroa andorra?"
- Kongresuak ardurakatu egiti du atunontzik eta segurtasuna oneratu
- "Alakrana" ren idon irudiak
- "Alakrana" Bermeoko atunontzia bahiturik dute Somaliko piratak

ERLAZIONATUTAKO EDUKIA

eitb.com-en agertutako berri baten egitura

Eitb.com-eko testuak oso aberatsak izaten dira eduki aldetik. Bideoarekin eta testuarekin orrialdea beteta agertzen zaigu. Horren adibide bat [ondoko testu hau](#) da.

Arrantzaleen segurtasuna bermatzeko Bermeoko zenbait atunontzik militar ohiak ontziratuko dituztela esaten digu albisteak.

Testu beraren egiturari dagokionez, Titularra, sarreratxo bat eta ondoren gorputza azaltzen dira. Eskumaldean, erlazioan dauden edukiak aurkitu ditzakezu (pdfak, gaiarekin erlazioantutako notiziak etab).

Bestetik, segur aski arratsaldeko Teleberrian edo emitituko zuten bideo bat du lagungarri . Ikusentzunezko honetan, gertakarien imajinei inguruko soinuek laguntzen diete (Alakranaren kapitainarekin kazetariak izandako solasaldi bat) baino ez.

Erredaktoreak akats ugari izan zituen testua idazterakoan, presaka edo ibiliko zen antza. Nik, hauexek atera dizkiot (hurrengo orria):

JATORRIZKO TESTUAREN ZUZENKETA



Bermeoko zenbait (zortzi) atunontzik militar ohiak ontziratuko dituzte¹

Erredakzioa - 2009/10/07 |

Alakrana bahitu zutela sei egun igaro diren honetan, Bermeoko zortzi atunontzik militar ohiak ontziratuko dituzte euren segurtasuna bermatzeko. Bestalde, bost pirata atxilotu dituzte² bart (atzo) Frantziako ontzi militar bati eraso egiteagatik.

(erasotzeagatik)

Seychelle Iretako bandera daukaten Bermeoko zortzi atunontzik (Indiako Ozeanoan arrantzan ari diren atunontzi izozkailuen herena) **militar ohiak ontziratuko dituzte** tripulazioaren segurtasuna bermatu eta Somaliako piraten erasoari aurre egiteko.

¹ `Zenbait`. 8 kopuru txikia da eta ez litzateke txarto etorriko kopuru hori zehaztea.

² `Atxilotu dituzte bart` barik, `Atxilotu zituzten` izan beharko litzateke. *Bart*-en erabilera *Atzo-gatik* ordezkatzea ere ez litzateke txarto etorriko.

Soldadu ohiak ontziratuko dituzten atunontziak Albacora enpresako *Intertuna I, Intertuna II eta Intertuna III*, Atunsa konpainiako *Artza*, Pevaeche enpresaren (2008ko apirilean bahitu zuten *Playa de Bakio* ontziaren jabea ere bada) *Txori Aundi* eta *Erroxape, Demiku* eta *Xixili* [duela sei egun bahitutako Alakrana](#) ontziaren jabea ere dena.³

Segurtasunak, orotara, **hilean 24.000 euroko** balioa izango du eta aipatutako Bermeoko enpresek egingo diete aurre gastuei.

Frantziako ontzi militar batek piraten eraso pairatu du bart gauean (PAIRATU...erderakada hutsa da!, sufrir) Somaliako uretan,⁴ ondorioz, gaur goizean, erasoan parte hartu zuten **bost pirata atxilotu dituzte**, eta Frantziako Gobernuko iturriek jakitera eman dutenez, operazioan **ez da zauriturik egon**.

<< Hobeto legote **Frantziako ontzi bati eraso diote** jartzea.

Christophe Prazuck Armadako Estatu Nagusiko bozeramaileak azaldu duenez, zantzu guztien arabera, piratak okertu egin zirela eta *La Somme* (armadaren petroleo-ontzia) arrantza-ontzi arrunt batekin nahastu **zuten**la.

Eraso pairatu zuen ontzia, ~~Frantziako~~ segurtasun-indarrek Somaliako uretan piraten erasoak saihesteko bidali zuten inguru horretara. **Frantziako segurtasun-indarrek, piraten erasoak saihesteko bidali zuten ontzia Somaliako uretara.**

Azken hileotan Somaliako piratek Indiako Ozeanoan ari diren atunontzien aurkako erasoak nabarmen areagotu dira, eta horregatik arrantzaleak **aspalditik ibili dira atunontzietan euren segurtasuna bermatzeko langileak ontziratzeo aukera aztertzen**. Azken hilabeteetan, **piratek atunontzien aurka bideratu dituzten erasoak nabarmen ugartu dira Indiako Ozeanoan.**

Espainiako legediak, baina, hainbat oztopo jartzen ditu atunontzietan segurtasuna ontziratzeari dagokionez, beraz, inguru horretan arrantzan aritzen den **euskal ontzien beste bi herenak ez du hain erraz lortuko aipatutako segurtasuna kontratatzea.**⁵

Horren harira, duela egun batzuk, [Espainiako Gobernu](#) militarrek euskal ontzietan ontziratzearen aurka (**kontra**) agertu (**azaldu**) zen, [Josu Erkoreka](#) (EAJ) Kongresuan egin zuen eskaerari erantzunez. Erkorekak, euskal ontzietan armadako militarrek sartzea (**SAR DAITEZELA, SAR DITZATELA**) eskatu zuen.

Bada; ¿??? (Carme Chacon Defentsa ministroak, bere aldetik...hobetsi beharko luke idazlean) Chacon Carme Chacon Defentsa ministroak iragan astelgehenean azaldu zuenez, "egoera konplikatu den arren, ezin dira militarrek ontziratatu. **Leku arriskutsu batetan lan egiten duen orok nahiko luke militar bat bere negozioko atean, baina ezin da**".

"Errusiarrak ez dira txantxetan ibiltzen piratekin"

Arrantzaleek azaldu dutenez, Indiako Ozeanoan ez dira soilik Espainia eta Frantziako atunontziak ibiltzen (**PERTSONIFIKAZIORIK EZ! Pertsonak ibili daitezke, erabili dezakete... Indiako Ozenadoa ez dute Espainia eta Frantziako atunontziak soilik nabigatzen, hobeto.**), Iran, Japonia eta Errusiakoak ere aritzen dira; baina "entzun al du norbaitek inoiz ontzi errusiar bat bahitu dutenik? Ez. **Piratek babesik gabeko atunontziak erasotzen dituzte** eta gainera errusiarrak ez dira txantxetan ibiltzen piratekin".

Patroiak Europarmentuan hitz egin dezala eskatu du EAJk

Izaskun Bilbao EAJren eurodiputatuak Europar Batasuneko estatuei "eskolta militarrek ontziratzeo" gomendioa ematea eskatu dio Europako Batzordeari, Somaliako uretan lan egiten duten atunontziak babeste aldera. *Alakrana* askatzen dutenean patroiari Parlamentuan hitza ematea ere proposatu du.

³ ontzien izenak aitatzean *DIRA*- batetin amaitu behar da (*dena* horrek ez dauka ez hanka ez buru)

Gainera, albistearen bertsio erdalduna begiratuta, Echebaster enpresari aipamena egiten zaiola ikusi dut baina testu honetan ez da aipatzen (*Erroxape, Demiku eta Xixili* atunontziak Echebasterrenak dira!)

⁴ Erredaktoreak ez du puntuen existentziaren berri, nolabait.

Europarlamentuaren aurrean egindako agerraldian, Bilbaok arrantzaleei eta senideei "elkartasuna" adierazteko eskatu dio (**nori?**) baita ere, Jerzy Buzek Parlamentuko presidenteari. Hobeto egongo litzateke: **berdina eskatu dio Parlamentuko presidente Jerzy Buzy.**

Gomendioa ematea eskatu? "eskolta militarrek ontziratze" gomendioa eman dio Europako Batasunari **zuzenagoa da.**

Beraz, zuzenketak eginda, nik honelaxe utziko nuen testua (hurrengo orria begiratu):

JATORRIZKO TESTUAREN ZUZENKETA



Bermeoko zortzi atunontzik militar ohiak ontziratuko dituzte

Erredakzioa - 2009/10/07

Seychelleetakobandera duten euskal itsasontzien segurtasuna bermatuko

dute

Indikoan dabilzan zortzi euskal atunontzik militar ohien babesia izango dute.

Soldadu ohiak ontziratuko dituzten enpresak Atunsa, Albacora eta Echevaster izango dira. Azken hori, *Alakrana* ontziaren jabea da.

Bermeokoak izan arren, Seychelleetako bandera dute zortzi ontziek, eta, ondorioz, ez dute Espainiako Gobernuaren laguntza ekonomikorik jasoko. Horrela, beren langileen segurtasuna bermatzeko, hilean 24.000 euroko gastuari egin beharko diote aurre atunontzien jabeek.

«Erabateko» segurtasunik ez

Indiako Ozeanoan, itsasontzien aurkako erasoak areagotu dituzte piratek.

Egoeraz kezkatuta, atunontzien jabeek **Espainiako militarrek ontziratze** eskaria berretsi dute. Asteartean, arrantzaleen eskakizuna Kongresura eraman zuen **Josu Erkorerak (EAJ)**, baina **segurtasuna bermatzeko sistema hori ezbaian jarri du Espainiako Gobernuak.**

Carme Chacon Defentsa ministroak joan den astlehenean **azaldu zuenez, "egoera konplikatu den arren, ezin dira militarrek ontziratatu.** Leku arriskutsu batean lan egiten duen orok nahiko luke militar bat bere negozioko atean, baina ezin da".

Frantziako ontziei eraso

Frantziako *La Somme* ontzi militarrek piraten eraso jasan zuen atzo gauean Somaliako uretan. Erasoan parte hartu zuten **bost piratak atxilotu dituzte** eta Frantziako Gobernuko iturriek jakitera eman dutenez, operazioan **ez da zauriturik egon.**

Arinago esan bezala, informazio asko eta asko plazaratzen dute egunero eitb.com-en. Testu asko sortzen dituzte, beraz eta ez da arraroa izaten akatsen bat edo beste ikusi ahal izatea. Testu batetik beste testu batera, hizkuntza arduradunak idatzi horiek guztiak ikuskatzen ditu eta aldaketak ezartzen dizkio. Hobespenak kazetari edo erredaktoreen aurrean egiten ditu askotan zuzentzaileak.

■ **Testuen txantiloiak: segmentuak, segmentuen arteko lotura, egitura**

Esan bezala, testuaren segmentazioa eskematikoa da: informazioaren nondik-norakoa ulertu dezagun, arloa zehazten zaigu lehenengo. Arloa zehaztuta, aurretituak albistegiaren atal horretan <<ZER>> aurkituko dugun esango digu eta tituluak albistearen muina laburbilduko du. Ondorengoa, denok dakiguna; piramide irauliaren ordena, atariari berari koherentzia ematen diona.

Sarritan, koherentzia hori hipertestuen erabilerarekin nabarmentzen da.

Jendearen pertzepzioa aldatu ez dadin, eitb.com-eko txantiloiak berdinak izaten dira. Ezetz irudituko zaizue, baina honek fidagarritasuna, informazio zehatzaren eskaintza eta profesionaltasun maila aitortzen dizkio webguneari.

Bigarren mailako orrialdeetan ez, baina HOME nagusian nahaspila itzela aurkitzen dugu. Ordena egokia edukia interesaren eta garrantziaren arabera antolatutzea da, baina albisteren batek pisu berezia duela ikusten badute goiko aldean mantentzen dute eta bestea gantzama bat balitz uzten dute behean.

■ **Testuaren eta elementu grafikoaren arteko lotura**

Eitb.com-eko testu gehienek elementu grafikoaren laguntza eramaten dute. Hala ere, eduki osagarriak albisteetan bertan bilatu beharrean, edukiaren arabera <<ARGAZKI>> edo <<BIDEO>> sailetan aurkitu ditzakete.

EiTB taldearen atarian, gehien-gehien erabiltzen diren aukerak testuei laguntzen dieten bideoak izaten dira eta blogen kasuan, argazkiak. Gehigarri hauek testuen aurkezpena interesgarri ere egiten dute.

Egunak aurrera egin ahala Haidar indarrak gabe geratzen ari da, gose grebaren ondorioz. Hori dela eta, ematekoa zuen prentsaurrekoa bertan behera...

📺 Haidar: 'Bizirik edo hilik baina itzuli egingo naiz'

Bideo bat albistearen gehigarri

EiTB taldearen webguneko kazetariak egunerokotasunari garrantzi berezia ematen dio eta momentuan momentuko informazioa era erakargarri batean plazaratzen du.

Agentzietako albisteak irakurriaz, kazetariak bere testua izango den horreni deia bat egiten du. Albistea idatzia duenean, plantilla editagarri batetan sartzen du eta nahi izanez gero argazki bat sartzen dio.

Argazkiez gain, testuari gehitu diezaioketen beste elementuetako bat bideoak dira. Ikusentzunezko hauek Euskal Telebistako albistegiaren erreportaiak izaten dira gehienbat, baina noiz edo noiz eitb.com-ekoek bideo propioak sortzen dituzte.

Gaiak behar bezalako arreta merezi badu, ETBk egindako bideoak eitb.com-eko testuari integratzen zaizkie. Berdina gertatzen da Euskadi Irratiko eta Radio Euskadiko soinuekin. Hala ere, bideoak testuen osagarri izaten diren bitartean audioak testuen gehigarri izaten dira.

Beste baliabidide grafiko batzuk infografiak eta gauzak kokatzeko mapak (Google maps-enak) ditugu. Atentatu bati buruzko albiste batean, adibidez, gertakariaren lekua erakutsi dezake mapak, infografiak errealitatearen errepresentazioa.

■ **Hipertestuaren eta hipermediaren erabilera eta garapena**

Hipertestuak modu linealean eta ez linealean irakurtzeko aukerak ematen dizkio eitb.com bisitatzen duenari, baina ez du inolaz ere behartzen horrela edo hala irakurtzera. Argi eta garbi utzi nahi dugu hipertestua, azaldutako egituraren arabera, errazagoa edo zailagoa izango dela; baina, orokorrean, irakurleak sekuentzia bati jarraitzen dio, estekak albo batera lagata zein ez. Eta bada, beraz, hipertestuan irakurketa lineala egiterik (gaur egun gero eta gutxiago egiten bada ere). Arestian esan bezala, irakurlearen esku dago zein irakurtze-moduri ekingo dion erabakitzea.

Testuekin, hau da, modu sekuentzialean edo linealean irakurtzen direnekin, alderantzizko prozesua gertatu ohi da. Geure buruaren barneko funtzionamenduak hipertestuak sortzeko joera dauka: hitz egiten dugunean hipertestuak sortzen ditugu, eta beste horrenbeste egiten dugu irakurtzen dugunean ere, ekintza berezkoa baita gure desbideratzeko joera hori eta bizitza errealearen antza handia du gainera. Gizakiok ekintzarik sinpleenak egiteko ere erabakiak hartu behar ditugu. Hipertestuaren irakurleek horrelako hautuak egin behar izaten dituzte une oro; esteka bakoitzaren aurrean zer egin erabaki behar dute. Horrez gainera, irakurketa lineala eskatzen duten testuek ezin dituzte saihestu, irakurtzen dugunean, geure barnean gertatzen diren prozesuak, eta prozesu horiek dira, hain zuzen ere, askotan testutik aldentzera behartzen gaituztenak.

5. Estiloa

■ **Hizkuntza- ereduak: erregistroa eta moldea**

Nahiz eta erdaraz, ingelesez eta frantsesez idatzitako testuak irakurri ditzakegun, EITBko hedabideen helburu nagusia euskararen erabilera egokia sustatzea da, euskal gizartean euskara normalizatzeko eta bultzatzeko.

Euskal Herrian euskalki asko ditugu eta EiTBkoek bateratasunaren alde egiten dute. Batuera erabiltzen da, beraz, euskara estandarra. Garrantzitsua da euskara eremu guztietara zabaltzea eta gazteentzat eredu izan daiteken hizkuntza bat sortu behar da, *Interneten* zabaltzea eta zuzena izango dena .

Eitb.com-en, baina, euskara modu berezi batean erabiltzen da. . Edukiak, gaiak eta gaien tratamendua erakargarriak izaten dira (azken finean bisitari gehiago lortzea da helburua) eta erakargarritasun hori argitasunez adierazten da, modu informal batean eta ikus-entzuleari zuzenean komunikatuz.



Euskarazko albistegietarako II. esku-liburuak *EiTBko euskara zerbitzuko lan taldeak landutako irizpide eta ereduak biltzen ditu.*

Miren Azkarate Kultura sailburu ohia, Andres Urrutia Euskaltzaindiako burua eta Andoni Ortuzar EITBko zuzendari ohia.
Argazkia: EiTB

■ **Informazioaren kudeaketa: kohesioa eta koherentzia**

Kohesioa estiloak ematen du, koherentzia estiloari ematen zaion erabilerak.

Egunez egun, gero eta gauza gehiago agertzen ari dira eta eitb.com-ek koherentzia barik kohesioa zaindu behar du. Azken hau taldearen buruzagiek erabakitzen dutenaren arabera da, koherentzia buruzagiek erabakitakoekin kazetariak egiten dutena.

Hizkuntzaren erabilera zabala da eta honen bitartez gai askoren inguruan hitz egin dezake kazetariak. Azken finean, erredaktore digitalen lana koherentzia errespetatuz testu (idatzi, bideo edo audioei buruz ari naiz) argiak eskaintzera laburbiltzen da, dena irakurlearen edo ikusentzuleriaren mesedetan.

EiTB.com-eko langileak, hizkuntza zerbitzuaren aholkularitzapean, kohesio-mekanismoen sail mugatua erabiltzen du bere esaldiekin diskurtso argia eta koherentea osatzeko, nahiz eta mintzaldia luzea denean laburpenak, presazko esaldi loturak etab egiten dituen.

Euskal irrati Telebistak aurkezten dizkigun zerbitzuak denbora mugatu batean erabiltzekoak izaten dira. Testuak aldiz, ez. Idatzizkoetan (albisteetan batez ere) puripurian dagoen gaia eguneratu egin behar izaten da eta informazio zaharra artxibo bat

bailitzan geratzen zaigu. Aurreko informazio horretatik abiatuz idazten duguna, horixe da koherentzia.

Testuan txertatutako estekek ere testutik kanpokoek baino areago errazten dute ulermen-prozesua. Lotura hauek aukera ematen diote erabiltzaileari edukiak sakontasun-maila ezberdinetan bereganatzeko, bere gogamen edota premien arabera.

Laburbiltzeko, eitb.com-en komunikazio funtzionala lehenesten dutela. Gainerako multimedia hedabideekin gertatzen den bezalaxe, testu laburrak baina osatuak plazaratzen dizkigu. Testu horiek lotura koherente eta egituratuak izaten dituzte, beste eduki eta baliabideekin. Horretarako esteka integratuak zein alboko estekak erabiltzen dira eta testua, multimedia eta elkarreraginezko baliabideak oinarrizko testuaren inguruan biltzen dira. Modu horretan, eduki bakoitzak beregaintasuna izaten du komunikazio-ingurune gisa.

■ **Hizkuntza-baliabideak:**

Hedabidearen helburuekin bat, eitb.com-ek argitasuna, zehaztasuna eta funtzionaltasunaren aldeko apustua egin nahi du.

Profesionalak berak edukiak hainbat dimentsiotan garatzen ditu, ahalik eta erabiltzaile gehienen beharrezan erantzunez. Sakontasuna, hedadura eta media kontuan hartuta, ikusleak ahalik eta informatuen izan nahi ditu eta informazio hori ondo ulertu dezatela nahi du.

Funtzionaltasuna berehalakotasunaren arabera da eta Interneten zaharra dena ere berehalakoa da. Kontsulta bat ere momentuan momentukoa da .

Eitb.com-ekoek hizkuntzari emango dioten trataera neurtzen dute. Albisteak, adibidez, garrantziaren arabera itzultzen dira beste hizkuntza batzuetara.

Testuak argitaratu baino lehen, gainera, interaktibotasunari emango zaion tokia eta trataera ondo aztertu behar dira. Lehenengo, zer nolako komunikazio-ingurunea sortu nahi duten jakin beharra izaten dute eta ondoren, halako baliabideak hautatzen dituzte eta nahi duten hizkuntzan baliatzen dute.

■ **Hizkuntza ereduaren egokitasuna:**

Aipatu bezala, EITBko hedabideek euskararen erabilera egokia sustatuko nahi dute, euskal gizartean euskara normalizatzeko eta bultzatzeko helburuarekin.

Honen baitan, 2009ko azaroaren 19an, Euskal irratia Telebistak Euskaltzaindiarekin hirugarren lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen.



EiTB eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren sinadura. Argazkia: EiTB

Era horretan, euskararen erabilera egokirako, EITBri aholkua eskainiko dio Euskaltzaindiak, eta taldearen hedabideek egindako kontsultei lehenetsua emango die. EITBk, bere aldetik, euskararen normalizazioa, sustapena eta erabilera zuzena bultzatuko ditu.

Lexikoaren behaketei dagokionez, UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin arituko dira lanean. Egitasmoaren helburua hau da: ikerketarako testu-corpus etiketatu eta linguistikoki antolatu bat prestatzea, hots, corpus monitore bat prestatzea, bai lexikoaren erabileraren azterketak egiteko, bai eta lexikoari dagozkion arauak eta gomendioak dokumentatzeko ere. Hori garatu ahal izateko, EITB-k ekoizten dituen testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu.

Gaur egundaino, EITB etxean bertan aritu izan da testuak hobetzen (eitb.com-en kasuan Joseba Etxebarría da euskararen egokitasunaz arduratzen dena), baina esan bezela, orain hobekuntzak elkarlanean burutuko ditu.



Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna izan dela eta, eitb.com-ek 'Euskaraz', euskara [atari berria](#), aieratu du. Besteak beste, EITBko Euskara Zerbitzuaren datu basea kontsultatu eta euskara ikastaro bat egin ahal izango da eta kontsultak gaztelaniaz, [frantsesez](#) eta [ingelesez](#) egin ahal izango dira gainera. Notizia paregabea, beraz, hizkuntza ereduaren egokitasunaren aldeko direnentzako.

Hiru.com-ek eskainita, euskara ikasi nahi dutenek onlineko ikastaro bat jarraitzea izango dute.

Euskarazko bertsioan, bestalde, ikastarorako sarbidea ez ezik, beste hainbat eduki ere jarriko ditu atariak erabiltzaileen esku. Eduki nabarmengarrietako bat HIKEA da, EITBko Euskara Zerbitzuaren aplikazio informatikoa. HIKEA, hizkuntza kontsultak egiteko aplikazioa, helburu jakin batez jaio zen: Euskal Irrati Telebistaren euskarazko hedabideetan hiztegi erabilera bateratzea.

Datu basean Euskal Irrati Telebistan adostutako hitz arruntak eta terminoak biltzen dira, betiko gordeta eta beharra duenak kontsultatzeko moduan gera daitezten. Horrez gainera, kanpoko lanak ere daude bertan, EITBn erabilgarri badira: Euskaltzaindiak erabakitako onomastika, EIMAK proposatutako izen-zerrendak, Elhuyarren izendegi bi (ugaztunak eta hegaztiak), eta abar.

Egiturari dagokionez, informazio ugari ematen dio erabiltzaileari: terminoa euskaraz eta gure inguruko hizkuntzetan (gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez), izen zientifikoa (bizidunen kasuan), forma gaitzetsiak, laburtzapena, egutegiko data (ospakizun eta abarren kasuan), gaikako sailkapena, jakingarriak, eta beste.

Halaber, beste hainbat eduki osagarri aurkituko dituzte euskararen inguruko interesa dutenek, hala nola Interneten aurkitu ahal diren hiztegiarako estekak, gaika antolatuta,

eitb.com-en euskararen inguruan argitaratutako azken albisteak, eta ETBk azken urteotan emandako pastoralen testuak (zubereraz eta euskara batuan) eta Zuberoako antzerki horien gaineko informazio ugari (zubereraren ezaugarriak, ikus-entzunezkoetan egindako bidea...).

The logo for 'ikasten.net' features the word 'ikasten' in a grey, lowercase, sans-serif font, followed by a stylized orange wave-like graphic that forms the letter 'n', and then '.net' in the same grey font.

[Ikasten.net](http://ikasten.net), HIRU.COM-en eskutik, euskara ikasteko aplikazio berria.

6. GEHIGARRIA

Interneten garapenak eta Sareko edukien gero eta eskari handiagoak, egoera berri bat sortu dute lan munduan. Gaur egun, kazetari elektronikoak, diseinatzaileak eta programatzaileak elkarren ondoan aritzen dira lanean, mundu guztiarengana iristeko asmoz.

Webguneek irakurri, ikusi eta entzuteko adina teknologia biltzen dute gaur egun, eta denbora errealaren berehalakotasunarekin gainera. Kontra daukan gauza bakarra, beharbada, erabiltzaile edo kontsumitzaileen denbora mugatua da, kasu askotan ez baitaude mundua beren begien aurrean igarotzen ikusteko ez ohiturarik, ezta astirik ere. Interneteko profesionalek ondo dakite hori, eta, horregatik, erakargarriak diren formulak bilatzen aritzen dira, hain beharrezkoa den fideltasuna sortzera bideratuta.

Ikerketa honen amaiera gero eta hurbilago dagoen honetan, Edurne Ormazabaleli eitb.com-eko Multimedia testuei buruz izan ditudan zalantzak adieraziko dizkiot. Ea berak erantzunen bat eman ahal didan!

Elkarrizketa ■ ■ ■

Edurne Ormazabal: «eitb.com-en izaera erabiltzaileak berak egiten du»



Edurne Ormazabal elkarrizketako une batean

Ormazabal (Tolosa, Gipuzkoa, 1963) EITBnet guneko zuzendari hautatu berri dute.

Psikologian lizentziatua bada ere, komunikabideetan egin du ibilbide profesional osoa, prentsan, telebistan eta irratan.

Euskadi Gaztea irratiako koordinatzailea izan da gaur arte eta urtean behin Donostiako Zinemaldiko arpegi maitatuena izaten da.

Ni.- Kaixo. Onlineko komunikazio bideetatik (bideo, argazki zein testu idatzia) zeinekin heltzen da bat errazago internautengana? Zein da eraginkorragoa?

EDURNE ORMAZABAL.- Dударik gabe mugitzen diren irudiak dira eragileagoak. Hori baieztatzeke Youtuberren arrakasta ikusi beharrik ez dago. Irudi batek mila estekadurak baino gehiago balio ditzake, bai.

I.P-Eitb.com-en egiten diren aldaketak zeren araberakoak izaten dira?

E.O.- Sarearen ezaugarrietako bat aldakortasuna da. Orain albistearen dena, momentu gutxira zaharkitua geratu daiteke eta teknologia oso azkar aldatzen den bezala, edukiak eguneratu egin behar dira.



I.P-Goiena.net-en 'orkestra kazetaria' jaio dela aipatzen dute. Azken finean, kazetariak informazioa jaso, argazkiak atera edo bideoak grabatzen ditu. Honek testuaren kalitatea ahalbidetuko du?

E.O.- Nire ustez orkestra kazetariaren aplikagarritasuna puntuala izan beharko litzateke, uneren batean momentukoa eta edukiaren araberakoa. Hala ere, teknologia eskuraerrazago duela eta, kazetari berriak komunikatzeko modu berriak menperatuko ditu.

I.P-EiTBren webguneak ba al du euskararekiko helbururik? Zein?

E.O.- Erakunde herritarra den heinean, eitb.com-ek eta EiTBko beste komunikazio bideek zerbitzu publiko bat eskaini behar dute. Modu horretan, euskal hiztunei erantzuten diegu eta euskaraz ez dakitenei hizkuntza ezagutzeko baliabideak ematen dizkiegu. Guk euskaraz informatzeko eta hizkuntza bera hobetzeko beharrezana daukagu.

I.P-Hizkuntzaren aukeraketak edukia baldintzatzen du?

E.O.- Bai, guztiz. Hau ez da gertatzen euskararen eta erderaren kasuan, baina bai frantsesez eta ingelesez. Informazioa erabiltzaileen arabera prestatzen dugu eta erabiltzaileak badaki bere hizkuntza aukeratzean nolako edukiak aurkituko dituen. AEBetako diasporan dagoena ingelesez sartuko da esateko, eta iparraldeko berriak bilatzen dituenak berriz, frantsesera joko du.

I.P-Irrati/ Telbista publikoa izanda, nola hautatzen ditu xede-taldeak (targetak) eitb.com-ek? Hau da, nola imajinatzen duzue erabiltzailea funtzio soziolinguistiko batetik?

E.O.-Guk edukiak ematen ditugu eta audientziak berak aukeratzen du ekoiztutakoa. Xede-taldea oso ezberdina da eta zaila da haren profil zehatz bat egitea. Hala ere, interneten erabilera ikusita, gure zibernautak 14 urtetik 36rako adintartean kokatzen ditugu. Jakin badakigu, adibidez, 60 urte inguru dituztena kez direla webgunera sartzen.

I.P-Zure ustez zertan hobetu behar du eitb.com-ek?

E.O.-Gizakiok akatsak egiten ditugu eta ez dut esango gure webgunea perfektua denik. Zerbait hobetu beharko bagenu nabegabilizazioa izango litzateke. Eduki asko ditugu eta ez dugu asmatzen haietako batzuen loturekin.

I.P-Zein irizpide dauzka eitb.com-ek infografiak sortzeko edo erabiltzeko? Zergaitik ez ditu gehiago erabiltzen?

E.O.-Nahi baino infografia gutxiago sortzen ditugu. Zoritxarrez, dena doa diruaren arabera. Gauza asko ezin daitezke testu soilekin azaldu eta infografiak emendiozko xehetasunak ematen dizkigute.

I.P-Nolakoa da testuen idazketa-prozesua? Gutxi gorabehera zenbat testu sortzen dira euskaraz? Zenbat itzuli?.


E.O.-Egunero-egunero, goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetan, erredaktoreek euskarazko eta erderazko testuak sortzen dituzte. Zifra bat emateko, 30 eta 50 testu bitartean egin ditzakegu lanegun batean. Gainerako hizkuntzetako testuak itzultzaileen egiten dituzte, denak euskarazko eta erderazko testuen tradukzioetik.

I.P-Zer irizpide ditu eitb.com-ek hipertestualitatea lantzeko? Kanporako estekak zer neurritan erabiltzen dira?

E.O.-Gero eta esteka gehiago erabiltzen ditugu baina oraindik asko daukagu egiteko. Edukiak beste eduki batzuekin lotuta, azkenean “artxibo erraldoi” bat sortzea izango dugu eta horixe da interesatzen zaiguna, gure webgunean trafikoa sortzea. Kanpoko estekekin, emandako informazioa albiste-iturriaren edo egilearen baitan geratzen da

I.P-Hasiera batean, webguneak eitb munduan ezagutarazi nahi zuen...egun zein da webaren funtzioa kanpora begira?

E.O.-Gauza guztien gaineratik komunikatzea dugu helburu. Guk Euskal Herria ezagutarazteko tresna bat bailitzan hartzen dugu webgunea eta munduari bertoko ikuspegia azaldu nahi diogu.



eitb.com-en beheko erredakzioa

ONDORIOAK

Hedabideek azkar bereganatu nahi izan dituzte teknologietan gertatutako eraldaketa berriak eta horiek komunikatzeko moduetan eragin dute iraultza.

Digitalizazioarekin, komunikabide tradizionalen aldean, hedabide multimedia eta digitalei era askotako komunikazio-inguruneak sortzeko modua agertu zaie. Horrek, aukera ematen die neurrian neurriko komunikazio eredu eta dinamikak eskainiko dituzten guneak sortzeko eta baita erabiltzaile-taldeen premiei eraginkortasunez erantzuteko.

Kazetaritza, beraz, aldatuz doa eta webguneak dira garapen horren lekuko. Badago egon webguneek garai batean inprentek komunikazioari eman zioten bultzada berbera emango diotela esaten duenik. Esanak esan, trenabiada bizian da eta badirudi edizio idatzitik edizio digitalera ematen ari den pauso honek ez duela etenik izango. .

Baina ez hori bakarrik. Hedabide multimedia eta digitalek aukera berriak zabaltzen dizkiote euskal hiztunen komunitateari elkarrekin harremanetan jartzeko, elkarrekin komunikatzeko eta berezko unibertso kultural, sozial eta komunikatiboa eraikitzeko hizkuntzaren inguruan. Beraz, hizkuntzaren zuzentzaile izateaz gainera, normalizatzailea ere bada.

Eitb.com euskal komunikabide digitalen aitzindaria dugu, korrante berrien lekukoa eta hedabideen erreferentzia. Hala ere, multimediarara begira aurrerapauso itzelak eman baditu ere, etorkizunean traba ugari gainditu beharko ditu (euskararen erabilera erdararen parekoa izatea, nabigazioa erraztea eta infografiaren erabilera areagotzea adibidez).

Eitb.com-ek urte bat bete du urriaren 10ean. Egun, interaktibotasuna, bat-batekotasuna eta pertsonalizazioa erabiliz, Euskal Irrati Telebistaren ikus-entzunezko eduki guztiak biltzen ditu. 24 ordutan, baina, gauza asko eta asko produzitzen dira eta webgunearen arduradunek ahal duten moduan ordenatzen dute eduki andana.

Erredakzioan bertan 40 pertsona egiten dute lan egunero, elkarlanean, euskarazko, erdarazko, ingelesezko eta frantsesezko edukiak sortzen. Gutxi dira euskara hutsean aurkitu ditzakegun hedabideak eta are gutxiago ama hizkuntza erabiliz informatzen diguten albiste agentziak. Horregatik, euskarazko berriak idazten eramaten dute erredaktoreek denbora gehien.

Lankideen kopuruak handia ematen du. Lanerako orduan, baina, 40 pertsonako plantilla txiki geratzen da. Honen baitan, askok eta askok **orquestra kazetarien** agerpena iragarri badute ere, EiTBk taldekako produkzioan lan egitea erabaki du.

Inoiz ez da berandu eta apurka apurka irrati-telebistek internetera begira jarri dituzte begiak. Orain, hasiera batean atzerakuntza izan zen horri aurre egin behar zaio. Eitb.com-eko Lontzo Sainzek esaten duenez, Internet euskarri bat izango bailitzan ulertzen dugu baina hori baino gehiago da, beste formatu batzuekin elkarlanean aritu daiteken unibertso multimedia bat. Kulturak eskaintzen dizkigunak kontsultatu, errezeta gastronomikoak ikuskatu etab luze bat. Momentuan momentuan anitz dira atariari eman diezazkiokegun erabilerak. Lau kanal eskaintzen zizkigun lehen Euskal irrati Telebistaren webguneak eta orain kanal asko dira atari baten.

Erabiltzaileek gustuko izaten dute hedabidean bertan parte hartzeko aukera izatea eta eitb.com-en zorte oneko dira behintzat. Foroetatik hasita Twitter aplikazioa maneiatu arte, zibernautak edozer egin dezake. Gainera, audientziak EiTB taldeko blogetara (ikus.eguraldiblog eta Zu kazetari blogak) argazkiak, bideoak eta testuak igo ditzake.

RTVEren webgunearekin gertatzen den bezala, hasierako orrialdeak sinplea behar du izan. Honela ez bada, eitb.com-eko bisitariei gertatzen zaiena gertatuko zaie, anabasean galdu egingo direla. Esan bezala, beste media batzuen HOME NAGUSIEk eduki gutxi izaten dituzte, batik bat nabegazioa errazagoa izateko eta “pastela” barnealdean aurkitzeko.

Paperezko mediek abantail tradizionalak dauzkate, bai, baina sareko ikusentzunezkoek onura gehiago aitortu diezaiokete. Egunerokoek eduki mimetikoak izan dituzte gaur arte eta egituraketa soila izan da (titularra, aurretitularra, sarreratxoa eta gorputza argazki batekin zekarzkitena).

Web-a higikorra da, etengabeko aldaketak bizi dituena. Betiko hedabideak (egunkariak, astekariak etab), aldiz, estatikoak dira. Gauzak horrela, erritmoa geldiezina da eitb.com-en baina informazioa landuagoa da (audioak, argazkiak eta bideoak momentuan momentuan igo daitezke).

Webgunearen kudeatzaileentzat edukien gestoreak dira erronka. Egindakoak kontrolatzeko hiru kudeatzaile izan nahi dituzte, denentzako balio duen “otzara” handi bat.

Euskal irrati Telebista gero eta audiobisualagoa bilakatzen ari da eta horrek mesede egiten die irrati-telebistei. Hala ere, bilatzaileak ez dira lagungarri, ez dituztelako esaterako bideoen trafikorik sortzen.

Efektu biral bat sortzeko edo, EiTBk Carlos Soberaren ‘Date el bote`ko hiruzpalau bideo igo zituen sarera. Barregarriak zirela eta sekulako arrakasta

izan zuten eta ondorioz audientzia barri bat agertu zen: sarekoa eta internazionala.

Bide horretan EiTbK kanal berri bat ireki du Youtuben. Google-len zerbitzuaren balioarritasuna eztabaidagarria da oraindik, ordea. Youtuberen bitartez Euskal Telebista bera promozionatu daiteke, baina audientziari begira ez du webgunean trafikurik sortzen.

Lehen esan bezala, baina, oraindik milaka gauza ditu euskal hedabide publikoaren orrialde webak hobetzeke. Hala ere, gutxika- gutxika hasi da zerbitzu hobegoa eskeintzen eta horretan arituko da hurrengo hilabeteetan ere: telebistako audientzia internetera erakartzen saiatu nahi dira webmasterrak eta

Diotenez, mundu osoa 6 pertsonen arteko harremanak lotzen du. Horixe berau da sare sozialen filosofia ere, irekiera eta zabalera eta eitb.com-ek bere egin ditu sare sozialak. Internetekoa iada ez da lagunen arteko sare sozial soila, bestelako informazioa jaso, bidali eta sarekatzeko modu berria da. Eta eitb.com-ek bere erabiltzaileak ezagutu nahi ditu, ezagutu gustukotasunarekin eta hurbiltasunarekin lotuta informazio ulerterraza plazaratzeko eta Ongi etorriak izan etorkizuneko eitb.com-era, ongi etorriak Euskal irrati Telebistaren gaur eguneko webgunera!



BIBLIOGRAFIA

Idatzizkoak edo ahozkoak izan, lan hau egiteko ugari dira kontsultatu diren **informazio iturriak**. Ikerketa garatzeko EiTbko zenbait profesionalekin hitz egitea izan dut, baita EHUko irakasle batzuekin ere.

AHOZKO INFORMAZIOA

ELKARRIZKETAK

Edurne Ormazabal anderea, EITBnet-eko zuzendaria.

Rebeka Garay Basterretxea anderea, EiTbko audientzia eta ikerketen sailekoa.
Leire Ganduz Arbaizagoitia anderea, eitb.com-eko multimedia arduraduna.

Gorka Jakobe Palazio jauna, Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio Fakultateko irakaslea.

HITZALDIAK

´ Multimedia komunikaziorako estrategia linguistikoak`. Lontzo Sainzek 2009ko urriaren 20an eta 21ean **EHU-EITB Masterraren** baitan emandako azalpenak.

IDATZIZKOAK

ESKULIBURUAK

SAINZ NIETO, Lontzo (2005) *Comunicación e Información. El trabajo de EiTb*. Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación (11). pp. 151-155. ISSN 1988-3935

BAÑALES REGÚLEZ, Iruñe (2005) *Redacción digital eitb.com*. Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación (11). pp. 251-255. ISSN 1988-3935

DIAZ NOCI, Javier; MESO, Koldo. *Komunikabideen Eredueak*. Leioa: UPV-EHU Argitalpen Zerbitzua, 1999. Eusko Jaurlaritza. Euskararen Aholku Batzordea, 2008. *Euskara hedabideeta* txostena.

INTERNET

-**Wegune ofizialak:** EiTbren homea; <http://www.eitb.com>
<http://www.rtve.es>

-**Kontsultak:** Terminologia → WIKIPEDIA
Hiztegia → 3000 hiztegia

